



PASAI DONIBANE KOXTAPE ARRAUN ELKARTEA

Donibane n° 1
20110 - PASAI DONIBANE (Gipuzkoa)
Telefonoa-Faxa: 943 52 41 66
koxtape.ae@telefonica.net



PASAI DONIBANE KOXTAPE Arraun Elkarteko ZUZENDARITZAREN OHARRA

Elkarteko senior emakumezkoen denboraldiaren inguruan azaroaren 12an Diario Vascon azaldutako berriaren aurrean, zuzendaritza honi eragin dion haserrea jakitera eman nahi dugu, bertan azaltzen diren gezur eta sasi-egiengatik eta herrian sortu duten zurrunbilo eta nahasteagatik.

Arraunlariarentzat denboraldi gogorra izan denaren jakitun gara, baina ez da xamurragoa izan zuzendaritza osatzen dugun kide guztiontzat. Ez genuke nahi horrelako beste denboraldirik nahiz eta garipen eta bandera asko irabazi.

Adierazpen guztiei banan-bana erantzun egoki eta zabala emateko, elkarteko bazkide guztiak EZ OHIKO BATZAR batera deitzeko konpremezua hartu nahi dugu. Bertan azalpenak emateaz gain, gure karguak bazkideen eskutan jarriko ditugu, lehendakariak jarri edo kentzea bazkideei bakarrik dagokielako, eta bazkideek horrela baderitzote zuzendaritza berri batekin arraunean jarraitu nahi dutenen arraunlarien jarraipena ahalbidetu dezakete.

Inolaz ere ez genuke nahi elkartearentzat traba edo oztopo izan eta zuzendaritza talde berri bati bidea irekitzeko prest gaude, zuzendaritza berri horrek eska diezazkigukeen lan eta aholkuetan gure laguntza osoa eskeiniz, gure elkarte eta herriko arraunaren onerako.

Pasai Donibane KOXTAPE Arraun Elkarteko zuzendaritza